

BITORIANO GANDIAGA.—*Denbora galdu alde*. Erein. Donostia, 1985.

Gure artean ez da egilea nor den esan beharrik, poesiaren alorrean behinik-pehin. Baina pertsonaia barneragotik ezagutu nahi duenak orain du aukera, aurkeztu guran gatozen liburu honek xehetasunik aski eskaintzen digunez. Bere lumaz aitortuko digu: «Berrogeitahamalau urte ditut laiotz naitzelarik».

Bai, «Behin batean bazen gizon bat, bat noiz den gizon ere ez zekiena». Eta denbora galdu alde aritu zen gizon gradueta goraka igo zenean. Zeren orduan hasi bai zen lanak, egin beharrak, arazoak betiko menpetasunean zerabiltzan eta hezkuntza bihurri hori uzteaz zintzotasunaren axola baztertuz denbora galdu alde aritzearren. Baliarik gabeko gauzak egiteari eman bai zion. Ipuiaren hasiera dirudi, baina hau ez da ipuia. Edo, bizitza bera ez ote da ipuia? Dena dela, abereen erresuman gizona denez ezertarako balio ez duen gauzak egiten dituen bakarra, zilegi zaio eroaldia ere, gauzen balioa bera neurtzeko adina ez denez gero. Baina, era berean, horrek bedorrek ez ote du gizonagotzen? Hori oraindik nabarmena azaltzen da barne-muinetatik azalpeko mintzetako epidermisera arte berezko sentiberatasuna dakartenen artean. Hala bai da izakia.

Era berean, mendimutila da liburu honen egilea. 31. orrialdean dionaren lekuko naiz, Araoztik Arantzazura bidean hala ezagutu nuenez. Morral handiz eta bortzegi zaharrez ibiltzen zen mendizale hura eta habitoz eta sandaliaz arin bestea, bakoitzak berekiko ametsak zeramazkiten pausolasterrez trink eginaz, nor nor zen jakiteka, euskaltzaitasun hitzaspertua erabili ondorean norbere bidetik jarraituko zutenek. Inoiz galdetzen nion nere buruari: «nongoa ote fraide beltzarana? Agian, Asiskoaren ametsak zeramazkin buruan». Baina, uste horren arabera, fraideak berak zer pentsa zezakean hiritar naturazale hartaz? Tartarinen itzala ez ote zuen nabarri? Izan ere, mundu honetan, bakoitza bere zoroak darabil:

*Ibiliz ihardun, joan etorri,
egon, entzun, irakurri;
bertsoen truke lor zenezake
bizitzeko lain hazkurri;
baina hain zaitut kikilimalo,
izukor eta mudurri,
irrits mingarriz gogo duzuna
berbera zaizu izurri.*

Hor bertan bertsozko autobiografia.

Baina, holako poeta honek hamalaudunik (sonetorik) ez du maite. Tekniketatik aske ibiltzea nahiago du eta ez du arrazoi faltarik. On egin bai dio, zeren sare horietara erori balitz antzu geratzeko arriskoa zuen.

Alperrik esango digu, 49. orrialdean, «Alferra izan naizen kezkarik ez dut, baina bai alferik aritu izan naizen damurik», irakurleok ez dugu sinestuko alperrik ibili denik, ez horixe. Beste gauza bat da poeta inoiz itoazten duena:

*Noizbaitzuetan kaltegarri erizten diot
nolabait lortu dugun
edo nolabait egotzi diguten
izen onari.
Izen horri eustera behartzen gaitu jendeak
batere errukirik gabe,
izen horri eutsi diezaiogula
hil ala bizi.*

Bere barneko kezkek eta gogoetak holako freskuraz agerzen dizkigu orrialderik orrialde. Gure ustez, iraun dezala horrelaxe denbora galdu alde. Denbora galtze horretatik ez bai du literaturak galerarik, eta izango du euskaldungoak zer irakurririk.

Liburu horretan, egileak inoiz besterik uste badu ere, ez dago une antzurik. Badakigu lan gehiago eskatzea ez dela bidezko, eta hoberik burutzea ez dela gauza erraza.

*Idazten jartzeko
astirik ez, eta orduanago
idazteko astia dut opa.
Idazteko astirik bai, eta orduan
astirik ez dudan hartako
idazteko gogoia dut falta.*

Hori ez da idazle honi bakarrik gertatzen zaiona, hori idazle guzien gaitza da.

Bakoitzak bere barruan aurkitu behar du biziaren grazia eta Gandiagak: «Apaizgoak izpiritu-esperientzia gozo eta izugarrietara eraman nau eta zor diot erlijio-bizitzari buruzko ikuspen ederrik, erlijiozko misterioak ekuztatzeko graziarik», aitortuko digu. Lasaitasun hori edonorrentzat enbidigarri da. Gure lasterketazko bizitzatik ansia horiek nabari ditut. Baita behin Gandiagari agertu ere:

—Neu ere gustora biziko nintzake Arantzazun, Aita Kandidoren ondoan, liburuak atontzen.

Berak hitzetik hortzera ihardetsi:

—Ba, etorri.

—Eta, emaztea ta semeak, zer?

—Sindikako ostatuan.

Umorean holakoa bait da gura Gandiaga. Baina, tontoa? 95. orrialdeko olerkian diona, inondik ere ez. Tonto jaiio zela uste badu ere, egun ez du tontotasunaren ilerik. Hutsaren hurrengo diren harroputz listopasauak bakarrik uste izango dute holako poeta tontoa dela.

Denbora galtze alde edo barrena lasaitze alde, burutu duen liburu hau ez da txantxetakoa. Hizkuntza erabileran berez duen gozotasunaz gainera, gogoetaren eremuetan naro dabil gure gizon hau. Liburuaren barna bere ikuspegiak jakingarriak iduritzen zaizkigu, bere buruaz diharduenean batipat. Horregatik, 99. orrialdean eskaintzen dituen bertsoak antologjikoak izan daitezke.

Euskaltzaletasunean ordea, beti zuhur eta tinko. 113. orrialdean dakartzan bertsoak abertzale direla esaten dutenen politiko kastarentzat onak dira. Naiz ezker edo naiz eskubi, hortaz jabetuko ote dira? Hortaz jabetzeko ez badira gauza, 114-115. orrialdeetan eskatzen duen solte nahi hori ez litzake aski.

Irakurgai aproposa da *Denbora galdu alde* burutu duena eta jarrai beza horrelaxe denbora galduaz.

Otsalar